

## Zuzenbidearen Euskal Akademiaren estatutuak euskaraz\*

ESTHER URRUTIA IDOIAGA

AVD-ZEA zuzendaritzaren kidea

Deustuko Unibertsitateko zuzenbide zibileko irakaslea

Zuzenbidearen Euskal Akademia, izatez, irabazteko asmorik gabeko kultura-elkarte da. Eratzeko ekitaldian bertan onetsi ziren haren estatutuak, 2003. urteko ekainaren 2an. Estatutuon sinatzaile izan ziren, bestetik, Luis Elicegui Mendizabal jauna, José María Urkia Etxabe jaunaren izen eta ordezkarietan, azken hori baita *Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte*-ko zuzendaria eta Gipuzkoako batzordeburua; bestetik, Fernando Salazar Rodríguez de Mendarozqueta jauna, Arabako batzordeburua; eta, azkenik, Emilio Múgica Enecotegui jauna, Bizkaiko batzordeburua. Bestalde, sinatzaile izan ziren, jarduneko bazkide gisa, Adrián Celaya Ibarra jauna, Francisco Javier Oleaga Echeverria jauna, Andrés Urrutia Badiola jauna eta Santiago Larrazabal Basañez jauna.

Geroago, 2003. urteko ekainaren 9an egiletsitako eskrituraren bitartez, elkarreak berezko nortasun juridikoa bereganatu zuen, eta, horrekin batera, bazkide sustatzaileek euren kargua utzi zuten eta lehenengo zuzendaritza-batza eratu zen.

Estatutuok gaztelania hutsean argitaratu ziren Akademiaren aldizkarian; zehatz esateko, aldizkari horren 0 zenbakian, 23. orrialdetik 32. erakoetan. Alabaina, Akademiak sorrerarik egin du euskararen aldeko apustua, eta, horren eretzean, bada garaia estatutuok euskaraz ikus ditzagun. Hona hemen

\*Este texto no recoge la modificación producida el año 2011.

Testu honek ez du barruraten 2011. urtean egindako eraldaketa.

nire bertsioa, berbategiarekin osatuta. Bertsio hitza erabiltzen dut, ez baita hau hitzez-hitzezko itzulpena; nolana ere, eta, zentzuzkoa denez, diskurtso juridikoak behar duen zorrotzasunari erreparatzen dio bete-betean.

Berau hobetzeko ekarpen guztiak ongi-etorriak izango dira, guztion artean Akademiaren oinarritzko arautegia euskara tekniko egoki eta duinean adieraz dezagun.

## ESTATUTOS DE LA ASOCIACIÓN CULTURAL ACADEMIA VASCA DE DERECHO

### CAPÍTULO I

#### DE LA NATURALEZA, DENOMINACIÓN, ÁMBITO, DOMICILIO Y FINES DE LA ASOCIACION

##### Artículo 1. De la denominación

Bajo la denominación de Academia Vasca de Derecho y con el impulso de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, se constituye una asociación cultural sin ánimo de lucro, acogida a lo dispuesto en la ley vasca 3/1988 de 12 de febrero.

##### Artículo 2. Fines

La Academia se propone el estudio, investigación y divulgación de las Ciencias Jurídicas y en especial las relacionadas con el Derecho vasco a partir de la Constitución española, el Estatuto de autonomía del País Vasco y las normas emanadas de los órganos autonómicos y forales, así como la doctrina jurídica y la jurisprudencia aplicable y los usos y costumbres tradicionales y vigentes.

Para alcanzar este objetivo la Academia realizará y fomentará toda clase de estudios, jornadas y sesiones de trabajo y, en su caso, publicará las

obras y resultados obtenidos por sus miembros o por personas, entidades o grupos de trabajo que contribuyan al mejor conocimiento y aplicación del Derecho Vasco.

ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA  
IZENeko KULTURA-ELKARTEAREN ESTATUTUAK

I. KAPITULUA

ELKARTEAREN IZAERA, IZENA, EREMUA,  
EGOITZA ETA HELBURUAK

1. artikulua. Izena

Zuzenbidearen Euskal Akademia izenarekin, eta *Euskalerrriaren Adiskideen Elkarateak* bultzatuta, irabazteko asmorik gabeko kultura-elkartea eratu da, Eusko Legebiltzarrak otsailaren 12an emandako 3/1988 Legearen itzalpean.

2. artikulua. Helburuak

Akademiaren xedea da zientzia juridikoak, eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbidearekin zerikusia dutenak aztertu, ikertu eta zabaltzea, horretarako abiapuntuak Espainiako Konstituzioa, Euskal Herriko Autonomia Estatutua eta autonomia-erkidegoko organoek nahiz foru-organoez emandako arauak izanik; orobat, doktrina juridikoa, jurisprudentzia aplikagarria eta indarreko usadio nahiz ohitura tradizionalak aztertu, ikertu eta zabaltzea.

Xede hori lortzeko, akademiak orotariko azterlanak, jardunaldiak eta lan-saioak egin eta sustatuko ditu; eta, hala denean, lanak eta emaitzak argitaratuko ditu, baldin eta horien egile badira akademiako kideak nahiz bestelako pertsona, erakunde edo lantaldeak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbidea hobeto ezagutu eta aplikatzeko lagungarri badira.

La Academia podrá crear premios o estímulos para la realización de trabajos de su interés sobre las bases que, al efecto, establezca la Junta de Gobierno

#### Artículo 3. *Ámbito de actividad*

La Academia podrá actuar en todo el ámbito de la Comunidad Autónoma Vasca.

La Academia se constituye con duración indefinida y sólo se disolverá en los supuestos previstos en el artículo 26 de estos Estatutos.

#### Artículo 4. *Domicilio social*

El domicilio de la Academia vasca de Derecho se establece en Bilbao, Alameda Recalde, 8, 1°. Podrán establecerse otras sedes en Álava y Guipuzcoa.

### CAPÍTULO II

#### DE LOS ASOCIADOS

#### Artículo 5. *Clases de socios*

La Academia se compondrá de socios o académicos activos, miembros de honor y miembros protectores.

Son académicos activos los licenciados en Derecho que hayan sido admitidos como tales por la Junta Directiva y cumplan sus obligaciones sociales.

Son miembros de honor las personas individuales que hayan sido designadas como tales por la Junta Directiva por haber prestado alguna especial colaboración a la Academia o servicios eminentes a las Ciencias Jurídicas. Tendrán también esta condición los académicos que hayan permanecido más de cuarenta años como socios activos.

Akademiak, bere intereseko lanak egin daitezzen, sariak edo pizgarriak sortu ahal izango ditu; gobernu-batzak ezarriko ditu, horretarako, sari nahiz pizgarrien oinarriak.

3. artikulua. Jarduera-eremua

Akademiak Euskal Autonomia Erkidegoaren eremu osoan jardun ahal izango du.

Akademia epe-mugarik gabe eratzen da, eta estatutu hauen 26. artikuluan ezarri kasuetan bakarrik desegingo da.

4. artikulua. Elkartearen egoitza

Zuzenbidearen Euskal Akademiaren egoitza Bilbon ezarri da, Recalde zemarkaleko 8. zenbakiaren 1. solairuan. Araban eta Gipuzkoan ere, bestelako ordezkariak jarri ahal izango dira.

II. KAPITULUA

ELKARTEKIDEAK

5. artikulua. Bazkide-motak

Akademiaren barruan, jarduneko bazkide edo akademiakideak, ohorezko kideak eta kide babesleak bereizi ahal izango dira.

Zuzenbideko lizentzia dutenak jarduneko akademiakideak dira, zuzendaritza-batzak halakotzat onartu dituenen, eta, betiere, elkarte-betebeharrak betetzen dituzten neurrian.

Gizabanakoak ohorezko kideak dira, zuzendaritza-batzak halakotzat izendatu dituenen, akademiari laguntza erabakigarria eman diotelako edo zientzia juridikoen arloan ekarpen aipagarriak egin dituztelako. Izaera hori bereganatuko dute akademiakideek ere, behin jarduneko bazkide gisa berrogei urte baino gehiago eginez gero.

Son socios protectores las personas o entidades que de algún modo ayuden o aporten medios para la buena marcha de la Academia.

Los estudiantes universitarios de Derecho podrán ingresar en la Academia como socios agregados en las condiciones que determine la Asamblea General, que podrá dictar un reglamento especial.

#### Artículo 6. Admisión de socios

Quienes deseen pertenecer a la Academia deberán solicitarlo por escrito avalado por dos socios. La Junta Directiva decidirá sobre la admisión dentro del mes siguiente a la presentación de la solicitud.

La Junta Directiva podrá designar miembros de honor, que no estarán sujetos a las obligaciones sociales pero tendrán voz en las Asambleas. El paso a la categoría de honor de los socios veteranos será aprobado por la Junta directiva.

El nombramiento de socios protectores será competencia de la Asamblea General, que valorará el interés social del nombramiento.

#### Artículo 7. Derechos de los académicos

Los académicos tienen todos los derechos que les reconocen la ley de Asociaciones y estos Estatutos. Tendrán voz y voto en las Asambleas y podrán formar parte de los órganos directivos.

También tendrán acceso a las publicaciones de la sociedad en la forma que se acuerde, sin hacer distinciones entre los socios.

Pertsona fisikoak nahiz erakundeak bazkide babesleak dira, akademiaren ibilbide onean laguntzen dutenean edota horretarako bitartekoak ekartzen dituztenean.

Unibertsitatean zuzenbidea ikasten ari direnak ere akademian sar daitezke, bazkide atxiki gisa, biltzar nagusiak ezarri baldintzetan; biltzarrak, horretarako, araudi berezia eman ahal izango du.

#### 6. artikulua. Bazkideak onartzea

Norbaitek akademiakide izan nahi badu, horretarako eskaria egin beharko du idatziz, eta bi bazkidek eskari hori berretsi beharko dute. Zuzendaritza-batzak onarpenaren gaineko erabakia hartuko du, eskaria aurkeztu eta hurrengo hilean.

Zuzendaritza-batzak ohorezko kideak izendatu ahal izango ditu; izendatuek ez dituzte izango elkarte-betebeharrak, baina biltzarretan hitz egin ahal izango dute. Eskarmentu handiko bazkideak ohorezko kategorian sar daitezten, zuzendaritza-batzak hori onetsi beharko du.

Biltzar nagusiari dagokio bazkide babesleak izendatzea; horretarako, izendapenak gizartean duen interesa baloratuko du.

#### 7. artikulua. Akademiako kideen eskubideak

Elkarteen Legeak nahiz estatutu hauek zein eskubide aitortu eta eskubide horiek guztiak izango dituzte akademiakideek. Akademiakideek biltzarretan hitz egin eta botoa eman ahal izango dute; eta zuzendaritza-organoetan parte hartu ahal izango dute.

Era berean, elkartearen argitalpenak eskuratu ahal izango dituzte, horretarako ezarri moduan, bazkideen artean bereizketarik egin gabe.

## Artículo 8. Deberes de los académicos

Son deberes de los académicos:

- a) Participar en las actividades de la Academia, y cumplir los Estatutos y los acuerdos de los órganos de gobierno.
- b) Contribuir al sostenimiento de los gastos con el pago de las cuotas que se establezcan por la Asamblea General
- c) Desempeñar los cargos, comisiones y servicios que se les encomienden por los órganos de la Academia conforme a lo previsto en estos Estatutos.

## Artículo 9. Pérdida de la condición de socio

Se perderá la condición de socio:

- a) Por fallecimiento.
- b) Por renuncia.
- c) Por acuerdo de la Junta Directiva que, después de tramitar un expediente en el que deberá ser oído en la forma que se establezca en reglamentos especiales se le prive de la condición de socio por incumplimiento reiterado de sus deberes como académico o por la realización de actos que perjudiquen a la Asociación gravemente.

8. artikulua. Akademiako kideen eginbeharrak

Hauexek dira akademiakideen eginbeharrak:

- a) Akademiaren jardueretan parte hartzea, eta estatutuak nahiz gobernu-organoen erabakiak betetzea.
- b) Gastuetan parte hartzea, biltzar nagusiak ezarri kuotak ordainduz.
- c) Estatutu hauen arabera, akademiaren organoek haien ardurapean zein kargu, batzorde eta zerbitzu jarri, eta horietan guztietan aritzea.

9. artikulua. Bazkide-izaera galtzea

Bazkide-izaera galduko da, honako kasu hauetan:

- a) Heriotzaren ondorioz.
- b) Uko-egitearen ondorioz.
- c) Zuzendaritza-batzak hartutako erabakiaren ondorioz. Erabakia hartu aurretik, espedientearen izapideak egingo dira, eta, izapideotan, bazkide-izaera galduko duenari entzun egingo zaio, araudi bereziek ezarri moduan; bazkide-izaera kentzeko arrazoiak izango dira, besteak beste, akademiakideen eginbeharrak behin eta berriz urratzea edota elkarteari kalte larria eragiten dioten egintzak burutzea.

## CAPÍTULO III

## DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO

## Artículo 10. Órganos colectivos

Son órganos colectivos de la Academia la Asamblea General y la Junta Directiva.

Podrán crearse comisiones de estudio o de gestión con las atribuciones que les asigne la Asamblea o la Junta Directiva, sin que puedan tener nunca las facultades que son exclusivas de estos órganos.

## Artículo 11. La Asamblea General

La Asamblea General la integran todos los socios activos. Podrán ser también invitados los socios de honor y los protectores, que tendrán voz pero no voto.

La Asamblea representa la voluntad de todos los socios y se reunirá en sesiones ordinarias o extraordinarias.

## Artículo 12. De la Asamblea General ordinaria

La Asamblea General ordinaria se reunirá, convocada por el Presidente, una vez al año en el último cuatrimestre. La Asamblea ejerce el gobierno y la alta administración de la Academia y es siempre de su competencia:

1. Aprobar el plan general de actividades de la Asociación.
2. Aprobar el estado de cuentas del año anterior y el presupuesto del ejercicio siguiente.
3. Aprobar la gestión de la Junta directiva y renovar los cargos cuando corresponda.

### III. KAPITULUA

#### GOBERNU-ORGANOAK

##### 10. artikulua. Kide anitzeko organoak

Akademiaren barruan, biltzar nagusia eta zuzendaritza-batza dira kide anitzeko organoak.

Ikerketa-batzordeak edo kudeaketa-batzordeak sortu ahal izango dira, eta biltzarrak edo zuzendaritza-batzak erabakiko du zein diren batzorde horien eskumenak; alabaina, batzordeek ezin dituzte inoiz izan aipatu organoei modu eskusiboan dagozkien ahalmenak.

##### 11. artikulua. Biltzar nagusia

Biltzar nagusia osatzen dute jarduneko bazkide guztiek. Biltzarretan parte hartzeko gonbita luzatu ahal zaie ohorezko bazkideei eta bazkide babesleei ere, eta biltzarretan hitz egin ahal izango dute, baina ezin izango dute botorik eman.

Biltzarrak bazkide guztien borondatea ordezkatzeko du, eta bilkura arruntak nahiz bereziak egin ahal izango ditu.

##### 12. artikulua. Biltzar nagusi arrunta

Biltzar nagusi arrunta urtean behin bilduko da, urte horretako azken lauhilekoan, lehendakariak deituta. Biltzarrak akademiaren gobernu eta goi administrazioa bereganatzen ditu, eta haren eskumenekoak dira beti:

1. Elkartearen jarduerari buruzko plan orokorra onestea.
2. Aurreko urteko kontuen egoera eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua onestea.
3. Zuzendaritza-batzaren kudeaketa onestea, eta, hala denean, karguak berriztatzea.

## Artículo 13. De la Asamblea General Extraordinaria

Se celebrará Asamblea General Extraordinaria cuando así lo decida el Presidente o lo solicite la Junta Directiva o un número de socios no inferior al 10% de los académicos activos.

Es de su competencia exclusiva la reforma de los Estatutos y la resolución de todas las cuestiones que les sean sometidas por el Presidente, la Junta directiva o los socios que hayan solicitado la convocatoria.

## Artículo 14. Funcionamiento de la Asamblea

La Asamblea General, ordinaria o extraordinaria, será convocada por el Presidente mediante anuncio fijado de forma visible en el domicilio de la Asociación, sin perjuicio de que se envíe una copia a cada socio, pero la falta de esta citación personal no determinará la nulidad de los acuerdos. La convocatoria deberá expresar el orden del día de la sesión, y deberá publicarse con un mínimo de quince días antes del día señalado.

La Asamblea se considerará válidamente constituida si hubiere veinte socios presentes, o la décima parte de los socios activos. Si no se alcanzara este quorum, la Asamblea podrá celebrarse una hora después de la anunciada sin que se exija ningún quorum de asistencia.

Todos los académicos pueden ser representados en la Asamblea General por otro académico en quien deleguen por escrito.

Para la adopción de acuerdos será necesario el voto favorable de la mayoría de los miembros presentes y representados. No obstante se exigirá la mayoría de dos tercios para los acuerdos que recaigan sobre:

1. Enajenación de bienes.
2. Modificación de los Estatutos
3. Disolución de la Asociación

La votación será secreta cuando lo determine el Presidente o lo soliciten diez socios.

### 13. artikulua. Biltzar nagusi berezia

Biltzar nagusi berezia bilduko da, lehendakariak hori erabakitzen duenean, zuzendaritza-batzak hori eskatzen duenean, edota jarduneko akademiakideen %10ak gutxienez hori eskatzen duenean.

Biltzar nagusi bereziaren eskumen eskusiboa da estatutuak eraldatzea, eta, orobat, lehendakariak, zuzendaritza-batzak edota deialdia eskatu duten bazkideek zein gai proposatu eta gai horiek guztiak erabakitzea.

### 14. artikulua. Biltzarraren jardunbidea

Biltzar nagusia arrunta izan zein berezia izan, deialdia lehendakariak egingo du. Horretarako, iragarkia jarriko du elkartearen egoitzan, begi-bistako tokiren batean. Horri kalterik egin gabe, bazkideei iragarkiaren kopia bidaliko zaie; baina zitazio pertsonal hori ez egiteak ez dakar berarekin erabakiak deusezak izatea. Deialdian, bilkuraren gai-zerrenda adierazi beharko da; eta bilera-data zein izan eta hori baino hamabost egun lehenago argitaratu beharko da.

Biltzarra baliozkotasunez eratu dela ulertuko da, baldin eta hogeitazko kide bertaratu badira, edo jarduneko bazkideen hamarrena bertaratu bada. Quorum hori lortu ezik, biltzarra zein ordutarako iragarri eta ordu bete beranduago egin ahal izango da; bigarren horretan, ez da bertaratze-quorumik bete behar.

Akademiakideek ordezkaria izan dezakete biltzar nagusian; horretarako, eskuordetza idatziz eman behar diote beste akademiakide bati.

Erabakiak hartzeko, beharrezkoa izango da bertaratutako nahiz ordezkaturako kide gehienek erabakiaren aldeko botoa ematea. Edonola ere, bi hereneko gehiengo lortu beharko da, erabakiak hurrengoak direnean:

1. Ondasunak besterentzea.
2. Estatutuak aldaraztea.
3. Elkartea desegitea.

Botazioa isilpekoa izango da, lehendakariak hori erabakitzen duenean edo hamar bazkidek hori eskatzen dutenean.

### Artículo 15. La Junta Directiva

La Junta Directiva está compuesta por el Presidente, el Vicepresidente, los presidentes de las distintas secciones de trabajo que se creen, el secretario, el tesorero, y el secretario técnico y el bibliotecario si llegaran a crearse estos cargos. Se completa con doce vocales, elegidos:

Tres por designación de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País entre socios activos de la Academia.

Otros cuatro serán elegidos entre socios activos a propuesta de los órganos corporativos de los Abogados, Notarios, Registradores de la Propiedad y Procuradores del País Vasco.

Cinco elegidos directamente por la Asamblea General.

Para ser elegido miembro de la Junta directiva será necesario tener una antigüedad mínima de tres años como miembro activo.

Los vocales podrán ostentar simultáneamente otros cargos, como la presidencia o secretaría de las secciones.

### Artículo 16. Duración de los cargos

La duración del cargo de Presidente será de tres años, reelegible por una sola vez. Los demás miembros de la Junta directiva cesarán también a los tres años, pero serán indefinidamente reelegibles. Los Presidentes de las secciones permanecerán en su cargo mientras su propia sección no les aparte del mismo, o presenten su dimisión.

Los miembros de la Junta directiva cesarán cuando expire su mandato, o por dimisión, cese en la condición de socio, revocación del nombramiento por la Asamblea General o fallecimiento. La Junta Directiva proveerá las vacantes que se produzcan mediante nombramientos que someterán a la primera Asamblea General.

15. artikulua. Zuzendaritza-batza

Zuzendaritza-batza osatzen dute lehendakariak, lehendakariordeak, lan-ataletako lehendakariak, halakorik sortuz gero bederen, idazkariak, diruzainak, eta idazkari teknikoak eta liburuzainak, kargu horiek sortuz gero behinik behin. Aurrekoez gain, zuzendaritza-batzak beste kide hauek izango ditu, modu honetan hautatuak.

Hiru kide, *Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak* hautatuta, akademiaren barruan jarduneko bazkide direnen artean.

Beste lau kide, jarduneko bazkideen artean hautatuta, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko abokatuen, notarioen, jabetza-erregistratzaileen eta prokuradoreen elkargoek proposatuta.

Bost kide, biltzar nagusiak zuzenean hautatuta.

Zuzendaritza-batzako kide izateko, nahitaezkoa izango da hautagaiak, gutxienez, hiru urteko antzinasuna izatea jarduneko kide gisa.

Batzakideek, aldi berean, beste kargu batzuk izan ahal dituzte, besteak beste, ataletako lehendakaritza edo idazkaritza.

16. artikulua. Karguen iraupena

Lehendakari-karguaren iraupena hiru urtekoa izango da; eta behin bakarrik hauta daiteke berriro. Zuzendaritza-batzaren gainerako kideek ere hiru urtera utziko dituzte euren karguak; baina nahi beste aldiz hauta daitezke berriro. Ataletako lehendakariak euren karguei eutsiko diete, kasuan kasuko atalak kargutik kentzen ez dituen artean edo eurek kargua uzteko erabakia aurkezten ez duten bitartean.

Zuzendaritza-batzako kideek euren karguak utziko dituzte, agintaldia bukatutakoan, edo kargua euren erabakiz uzten dutenean, bazkide-iza-era galtzen dutenean, biltzar nagusiak izendapena ezeztatzen duenean edota hiltzen direnean. Zuzendaritza-batzak kargu hutsak beteko ditu, hala bada, horretarako izendapenak eginez; izendapenok lehenengo biltzar nagusiaren mende geratuko dira.

#### Artículo 17. El Presidente

El Presidente asume la representación legal de la Academia, preside la Asamblea General y la Junta directiva y ejecuta sus acuerdos.

Corresponden al Presidente todas las facultades que no estén expresamente reservadas a la Asamblea o la Junta Directiva, y en especial convocar y levantar las sesiones y dirigir las deliberaciones, impulsar y dirigir los planes de actividades, ordenar los pagos y resolver las cuestiones de carácter urgente dando conocimiento a la Junta Directiva en la primera sesión que celebre.

Además deberá leer el discurso de apertura del curso académico al año de su elección. En los años intermedios, leerá el discurso el vicepresidente o la persona a quien el Presidente se lo encomiende.

#### Artículo 18. El Vicepresidente

El vicepresidente sustituye al Presidente en caso de cese, ausencia o imposibilidad, o, en los actos en que el Presidente delegue su representación. Leerá el discurso de apertura cuando el presidente se lo encomiende.

#### Artículo 19. El Secretario

El Secretario custodia los documentos y archivos de la Academia, lleva el fichero y el registro de socios, mantiene la correspondencia, elabora la memoria general, expide certificaciones y copias, redacta las actas de la Asamblea y la Junta directiva y ostenta la jefatura del personal administrativo.

#### 17. artikulua. Lehendakaria

Lehendakariak akademiaren lege-ordezkaritza bereganatzen du, biltzar nagusiaren nahiz zuzendaritza-batzaren buru da, eta horien erabakiak betearazten ditu.

Lehendakariari dagozkio biltzarrarentzat edo zuzendaritza-batzarentzat beren-beregi erreserbatuta ez dauden ahalmen guztiak; eta, bereziki, bilkuretarako deialdiak egitea eta horiek amaiaraztea, bilkuretako eztabaidak zuzentzea, jarduera-planak bultzatu eta zuzentzea, ordainketak agintzea, eta, orobat, presako gaiak erabakitzea, zuzendaritza-batza jakinaren gainean jarritz, horrek lehenengo bilkura noiz egin eta bertan.

Gainera, lehendakariak, ikasturte akademikoa irekitzeko hitzaldia irakurriko du, hautaketatik urtebetera. Bitarteko urteetan, hitzaldia irakurriko du lehendakariordeak, edo, bestela, lehendakariak eginkizun hori noren ardurapean jarri eta horrexek.

#### 18. artikulua. Lehendakariordea

Lehendakariordea lehendakariaren ordezkoa da, horrek kargua uzten duenean, absente dagoenean edo ezin duenean kargua bete; bai eta lehendakariak bere ordezkaritza lehendakariordeari zein egintzatarako eskuordetu eta egintza horietan ere. Irekitze-hitzaldia irakurriko du, lehendakariak hori haren ardurapean jartzen duenean.

#### 19. artikulua. Idazkaria

Idazkariak akademiaren dokumentuak eta agiriak zaintzen ditu, bazkideen fitxategia eta erregistroa eramaten ditu, postaz arduratzen da, txosten orokorra prestatzen du, ziurtagiriak eta kopiak luzatzen ditu, biltzarraren nahiz zuzendaritza-batzaren bilerei buruzko aktak idazten ditu, eta, halaber, langile administratiboen burutza bereganatzen du.

## Artículo 20. El Tesorero

Corresponde al Tesorero:

- a) Recaudar las cuotas, administrar y conservar los fondos e informar a la Junta directiva sobre estos extremos
- b) Efectuar los pagos autorizados por el Presidente
- c) Redactar el presupuesto anual y dar cuenta de las inversiones y gastos efectuados.

## CAPÍTULO IV

## DE LAS SECCIONES DE ESTUDIO

## Artículo 21. Secciones de estudio

La Academia debe crear Secciones de estudio para las distintas disciplinas jurídicas o incluso para temas concretos de interés general. El establecimiento de una Sección debe ser acordado por la Junta Directiva.

Cada Sección tendrá su Presidente y Secretario, elegidos entre sus miembros.

Cada Sección debe informar a la Junta Directiva al final de cada año académico de todas las actividades llevadas a cabo.

20. artikulua. Diruzaina

Diruzainari dagokio:

- a) Kuotak biltzea, funtsak administratu nahiz kontserbatzea, eta zuzendaritza-batzari gai horien gaineko argibideak ematea.
- b) Lehendakariak baimendutako ordainketak egitea.
- c) Urteko aurrekontua idaztea, eta egindako inbertsio nahiz gastuen kontu-arrazoiak ematea.

IV. KAPITULUA

IKERKETA-ATALAK

21. artikulua. Ikerketa-atalak

Akademiak ikerketa-atalak sortu behar ditu, zuzenbidearen jakintza-arlo desberdinentzat, bai eta interes orokorreko gai zehatz batzuentzat ere. Zuzendaritza-batzak erabakiko du atalen sorrera.

Atal bakoitzak bere lehendakaria eta idazkaria izango ditu, bere kideen artean hautatuta.

Atal bakoitzak, urte akademikoaren bukaeran, argibideak eman behar dizkio zuzendaritza-batzari, egindako jarduera gutzietan buruz.

## CAPÍTULO V

## DE LOS CENTROS TERRITORIALES

## Artículo 22. Centros Territoriales

La Academia podrá crear un Centro Territorial en Guipúzcoa y otro en Álava, de acuerdo con la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, siempre que las circunstancias lo hagan viable.

Cuando se constituya un Centro territorial se reformarán los Estatutos con objeto de acomodarlos a esta nueva situación.

## CAPÍTULO VI

## PUBLICACIONES

## Artículo 23. Boletín y publicaciones

Un Boletín cuyas características y periodicidad establecerá la Junta directiva será el órgano oficial de la Academia.

La propia Junta creará un Consejo de redacción y regulará su funcionamiento. El consejo rendirá cuentas periódicamente de sus tareas.

La Junta directiva podrá también autorizar la publicación de otros estudios o trabajos que tengan interés en cualquier campo del Derecho.

V. KAPITULUA

LURRALDEETAKO ORDEZKARITZAK

22. artikulua. Lurraldeetako ordezkariak

Akademiak lurraldeko ordezkariak sortu ahal izango du Gipuzkoan, eta beste bat Araban, betiere Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearekin ados jarrita eta inguruabarren arabera hori bideragarria den heinean.

Lurraldeko zentroa eratuz gero, estatutuak eraldatuko dira, estatutuok egoera berri horri egokitzeko.

VI. KAPITULUA

ARGITALPENAK

23. artikulua. Aldizkaria eta argitalpenak

Aldizkaria izango da akademiaren agerkari ofiziala; zuzendaritza-batzak ezarriko du zein diren aldizkariaren ezaugarriak eta noiz argitaratzen den.

Batzak berak idazketa-kontseilua sortuko du eta horren jardunbidea arautuko. Kontseiluak bere zereginari buruzko kontu-arrazoak emango ditu aldian-aldian.

Zuzendaritza-batzak baimendu ahal izango du, halaber, bestelako azterlanak edo lanak argitaratzea, horiek interesgarriak badira zuzenbidearen esparruetatik edozeinetan.

## CAPÍTULO VII

## RÉGIMEN ECONÓMICO Y FINANCIERO

## Artículo 24. Régimen económico y financiero

La Asociación carece de patrimonio fundacional.

Los recursos económicos previstos por la Asociación para el desarrollo de sus actividades sociales serán los siguientes:

- a) Las cuotas periódicas y de entrada que señale la Directiva.
- b) Los productos de los bienes y derechos que le correspondan, así como las subvenciones, legados y donaciones que pueda recibir en forma legal.
- c) Los ingresos que obtenga mediante las actividades lícitas que acuerde la Junta directiva, siempre dentro de los fines estatutarios.

## CAPÍTULO VIII

## MODIFICACIÓN DE LOS ESTATUTOS

## Artículo 25. Procedimiento

Los Estatutos pueden ser modificados a iniciativa de la Junta Directiva o por solicitud de un 5 % de los socios inscritos. El proyecto de reforma será redactado por una ponencia nombrada por la Junta y compuesta por un mínimo de tres miembros.

El proyecto que se redacte deberá ser aprobado por la Junta o devuelto a la ponencia para nuevo estudio con las observaciones que se hayan hecho por los miembros de la Junta. Una vez admitido se convocará una Asamblea General Extraordinaria para el estudio y aprobación, si procede, de la reforma.

VII. KAPITULUA

ARAUBIDE EKONOMIKOA ETA FINANTZA-ARAUBIDEA

24. artikulua. Araubide ekonomikoa eta finantza-araubidea

Elkartek ez du eratze-ondarerik.

Elkartek, bere elkarte-jarduerak garatzeko, hurrengo baliabide ekonomikoak aurreikusi ditu:

- a) Aldizkako kuotak eta sarrera-kuotak, zuzendaritzak ezarritakoaren arabera.
- b) Elkartearen ondasunek eta eskubideek ematen dituzten produktuak, bai eta lege bidez jaso daitezkeen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak ere.
- c) Zuzendaritza-batzak, estatutu-helburuen barruan, jarduera zilegiak erabaki ondoren, jarduera horien ondorioz lortutako diru-sarrerak

VIII. KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDARAZTEA

25. artikulua. Prozedura

Estatutuak aldarazi ahal izango dira, zuzendaritza-batzak hala eskatuta, edo, osterantzean, inskribatutako bazkideen %5ak hala eskatuta. Batzorde txostengileak idatziko du eraldaketa-proiektua; batzak izendatuko du batzorde hori, eta, gutxienez, hiru kide izango ditu.

Idatzitako proiektu horrek batzaren onespena lortu behar du; onespena lortu ezik, proiektua batzorde txostengileari itzuliko zaio, berriro azter dezan, batzakideek egindako oharrak kontuan hartuta. Behin proiektua onartuta, biltzar nagusi berezirako deialdia egingo da, horrek eraldaketa azter dezan, eta, egoki bada, onets dezan.

A la convocatoria deberá acompañarse el texto íntegro de la modificación que se propone, a la que los académicos podrán formular enmiendas por escrito presentándolas en Secretaría una semana antes de la fecha de la Asamblea.

La reforma deberá ser aceptada por una mayoría de dos tercios de los socios presentes y representados en la Asamblea.

## CAPÍTULO IX

### DISOLUCIÓN Y LIQUIDACIÓN

#### Artículo 26. Disolución

La Asociación se disolverá:

1. Por voluntad de los socios expresada en Asamblea General convocada al efecto, y con el voto de la mayoría de dos tercios de los socios presentes y representados.
2. En los supuestos previstos en el art. 39 del Código Civil.
3. Por sentencia judicial.

#### Artículo 27. Liquidación

La Asamblea que acuerde la disolución nombrará una comisión liquidadora de tres miembros de la Junta Directiva que se hará cargo de los fondos que existan y hará efectivas las obligaciones sociales que existan.

Los bienes que puedan quedar remanentes se destinarán a obras benéficas de carácter social.

Deialdiarekin batera, proposatutako aldarazpenaren testu osoa bidali beharko da; akademiakideek zuzenketak egin ahal izango dituzte idatziz, eta, horretarako, idazkaritzan aurkeztu beharko dituzte zuzenketok, biltzarra egiteko data zein izan eta aste bete lehenago. Biltzarrean, eraldaketa onartu beharko dute bertaratutako eta ordezkaturako bazkideen bi herenek.

## IX. KAPITULUA

### DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

#### 26. artikulua. Desegitea

1. Bazkideen borondatez; borondate hori adierazi behar da horretarako beren-beregi deitutako biltzar nagusian, eta bertaratutako eta ordezkaturako bazkideen bi herenek desegitearen aldeko botoa eman behar dute.
2. Kode Zibilaren 39. artikuluan ezarri kasuetan.
3. Epaiaren ondorioz.

#### 27. artikulua. Likidazioa

Biltzarrak, desegitea erabakiz gero, batzorde likidatzailea izendatuko du; batzordekide izango dira zuzendaritza-batzako kideetatik hiru. Batzorde likidatzailearen ardurapean geratuko dira une horretan diren funtsak, eta batzordeak beteko ditu une horretan diren elkarte-betebeharrak.

Behin hori eginda, ondasunen bat geratzen bada, hori gizarte-izaerako ongintza-ekintzetarako erabiliko da.

## DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera. El tiempo que transcurra desde la firma de los presentes Estatutos hasta el 31 de diciembre de 2003 se considerará período fundacional. Quienes se inscriban como académicos en ese plazo tendrán la condición de socios fundadores y podrán ocupar cualquier cargo sin necesidad de cumplir un período de antigüedad.

Segunda. Los firmantes del acta de constitución formarán una Junta Directiva Provisional que constará de cuatro miembros: Presidente, Secretario Tesorero y Vocal, a la cual podrán agregar otros miembros para realizar las gestiones necesarias para la puesta en marcha de la Academia. Esta Junta Directiva representará a la Academia en todos los actos y contratos que celebre.

Tercera. La Junta Directiva convocará la Asamblea General a partir del momento en que haya cuarenta socios inscritos o como máximo en un plazo que termina el 31 de diciembre de 2003. En dicha Asamblea se ratificarán los Estatutos y se elegirá una nueva Junta Directiva a la que se aplicará lo dispuesto en el artículo 15, cesando automáticamente los miembros de la Junta provisional.

Cuarta. La Asamblea General podrá aprobar un Reglamento de régimen interior que desarrolle estos Estatutos, así como reglamentos particulares para supuestos concretos.

Quinta. La Junta Directiva designada en la primera Asamblea General extenderá su mandato hasta el mes de octubre del año en que se hayan cumplido tres años de su elección.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Eratze-aldia izango da estatutu hauek sinatu direnetik 2003. urteko abenduaren 31 arteko epea. Epe horretan, akademiakide gisa izena ematen dutenak bazkide sortzaile izango dira, eta edozein kargu bereganatu ahal izango dute, antzinasun-aldia bete barik ere.

Bigarrena. Eraketa-akta sinatu dutenek behin-behineko zuzendaritza-batza osatuko dute. Batza horrek lau kide izango ditu: lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta batzakidea. Batza horretara beste kide batzuk ere atxiki ahal izango dira, akademia abian jartzeko zein kudeaketa beharrezko izan eta kudeaketa horiek guztiak burutzeko. Zuzendaritza-batza horrek akademia ordezkatzeko du, akademiak egiten dituen egintza eta kontratu guztietan.

Hirugarrena. Behin berrogei bazkidek izena eman eta gero, edo, gehienez jota, 2003. urteko abenduaren 31a baino lehen, zuzendaritza-batzak biltzar nagusirako deialdia egingo du. Biltzar horretan, estatutuak berretsiko dira eta zuzendaritza-batza berria hautatuko da; zuzendaritza-batza horri 15. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio, eta behin-behineko batzakideek, zuzenean, euren karguak utziko dituzte.

Laugarrena. Biltzar nagusiak barne araudia onetsi ahal izango du, estatutu hauek garatzeko; orobat, araudi bereziak onetsi ahal izango ditu kasu zehatzetarako.

Bosgarrena. Behin lehenengo biltzar nagusiak zuzendaritza-batza izendatuta, zuzendaritza-batza horren agintaldia luzatuko da, beraren hautaketatik hiru urte noiz bete eta urte horretako urria arte.

## BERBATEGIA (GAZTELANIA-EUSKARA)

Académico	akademiakide, akademiako kide
Acta de constitución	eraketa-akta
Actividad social	elkartearen jarduera
Admisión	onarpen/onartze
Ámbito de actividad	jarduera-eremu
Ánimo de lucro	irabazteko asmo
Antigüedad	antzinatasun
Asamblea general	biltzar nagusi
Asamblea General extraordinaria	biltzar nagusi arrunt
Asamblea General ordinaria	biltzar nagusi berezi
Asociación cultural	kultura-elkarte
Asociado	elkartekide
Atribuciones	eskumenak
Bibliotecario	liburuzain
Boletín	aldizkari
Cargo	kargu
Centros territoriales	lurraldeetako ordezkariak
Cese (kargua)	utzarazte
Comisión de estudio	ikerketa-batzorde
Comisión de gestión	kudeaketa-batzorde
Comisión liquidadora	batzorde likidatzaile
Consejo de redacción	idazketa-kontseilu
Convocatoria	deialdi
Cuota	kuota
Deberes	eginbeharrak
Deliberación	eztabaida
Denominación	izen
Derechos	eskubideak
Dimisión (kargua)	uzte
Disolución	desegite
Disposición transitoria	xedapen iragankor
Domicilio social	elkartearen egoitza
Estatutos	estatutuak
Facultad	ahalmen

Fallecimiento heriotza  
Fin helburu  
Fin estatutario estatutu-helburu  
Fondo funts  
Funcionamiento jardunbide  
Gasto gastu  
Grupo de trabajo lantalde  
Inversión inbertsio  
Junta directiva zuzendaritza-batza  
Junta directiva provisional behin-behineko zuzendaritza-batza  
Ley de Asociaciones Elkarteen Legea  
Liquidación likidatze/likidazio  
Mandato agintaldi  
Mayoría gehiengo  
Miembro o socio de honor ohorezko kide edo bazkide  
Miembro o socio protector kide edo bazkide babesle  
Modificación aldarazpen/aldarazte  
Naturaleza izaera  
Nombramiento izendapen/izendatze  
Obligaciones sociales elkarre-betebeharrak  
Obras benéficas de carácter social gizarte-izaerako ongintza-ekintzak  
Órgano colectivo kide anitzeko organo  
Órgano de gobierno gobernu-organo  
Órgano directivo zuzendaritza-organo  
Patrimonio fundacional eratze-ondare  
Período fundacional eratze-aldi  
Ponencia batzorde txostengile  
Presidente lehendakari  
Presupuesto aurrekontu  
Procedimiento prozedura  
Proyecto de reforma eraldaketa-proiektu  
Publicación argiltapen  
Recurso económico baliabide ekonomiko  
Régimen económico araubide ekonomiko  
Régimen financiero finantza-araubide

Registro de socios   bazkideen erregistro  
Reglamento de régimen interior   barne araudi  
Reglamento particular   araudi berezi  
Renuncia   uko(-)egite  
Representación   ordezkaritza  
Revocación   ezeztapen/ezeztatze  
Sección de estudio   ikerketa-atal  
Sección de trabajo   lan-atal  
Secretario   idazkari  
Secretario técnico   idazkari tekniko  
Sede   ordezkaritza  
Sesión   bilkura  
Socio   bazkide  
Socio agregado   bazkide atxiki  
Socio fundador   bazkide eratzaile  
Socio o académico activo   jarduneko bazkide edo akademiakide  
Socio presente   bazkide bertaratu  
Socio representado   bazkide ordezkatu  
Socio veterano   eskarmentu handiko bazkide  
Tesorero   diruzain  
Vacante (postu) huts  
Vicepresidente   lehendakariorde  
Vocal   batzakide